

# KULTURAK ELKARREN ARTEKO GATAZKAN. CULTURES IN CONFLICTS

**Joxemartin Apalategi Begiristain**

Antropólogo eta Irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea

---

---

XI Congreso de Estudios Vascos:  
Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa». Donostia, 1991  
ISBN: 84-87471-35-8  
Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992. p. 147-152

## AURKIBIDEA

Sarrera: orainartekoa laburbilduta.....	149
<i>Weltanschauung</i> pean, gaur rarte.....	149
Mundukozazpi handikien mundua, gaur.....	149
Kulturaren alderdi bikoitza: estatikoa eta dinamikoa .....	150
20. mende bukaerako galdera nagusia.....	150
Kultura batzaile-aren/en ezaugarrietarantz: Paradigma berria.....	150
Amaiera. Nire tesia.....	151
Bibliografía.....	152

## SARRERA: ORAINARTEKOA LABURBILDUTA

19. mendean, Europan bezala Ipar Ameriketara, kulturen arteko gatazka zuzen zuzenean aztertzeari antropologoek ez zioten heldu. Azterketa mota hau soziologoek eskutuan zegoen.

Zabalkundearen antropologiako teoritzaleek (F. Graebner-ek eta F. Boas-ek, esate baterako), aurreko eta oraingo mende bitartean, munduko edozein kultura ikasketaren premia azpimarratu zuten. Baita gauza bera gertatu zen euskaldunekin ere (T. Aranzadikin, W. Webster-ekin eta Jm. Barandiaranekin, besteak beste).

Azken ehun urte hauetan, gure hiru antropologo nagusienek, T. Aranzadik, Jm. Barandiaranek eta J. Caro Barojak, heuren kultura aztertu dutenean, munduko beste edozein aztertu duen beste edonorrek bezala, kultura bat eta beste guztietatik desberdin bezala jotzea proposatu izan dute. Euskaldun hauen kasuan ere, azterketa, ordea, kultura estatikoaren ikuspegitik nagusiki burutua zegoen. Aldaketa edo dinamika ikuspegiak ez zuen halako leku garrantzitsurik orduko munduko antropologiako teorietan. Beraz, kulturen arteko gatazka orduko euskal antropologoek ere ez zuten behar haina kontutan eduki.

Gaur, aldiz, antropologoek kultura baten ezaugarri nagusienetzat jotzen ditugu bere estatiko nahiz dinamiko alderdiak. Biak, denbora luzean eta berdin motzean, edozein kulturaren oinarritzako osagarritzat dauzkagu. Iraun eta aldatu egitean datza edozein kulturaren izatea, zeina orain arte gatazka baten ondorioz bakar bakarrik beti eman da.

Kultura guztiak, pertsona guztion antzera, beren baitan berdinak dira, eta elkarren artean ezberdinak. Batzuk indartsuak, bestatzuk makalak. Historia garaikidean zehar euskal kultura makala da Europako eta Munduko beste handien artean.

Aldi berean, halere, euskal kultura onartua izan da kultura bat bezala etxean eta atzerrian. Hori, hein handi batetan, euskal antropologiari esker, zeina aipatu handien gidaritzapean batipat burutu izan da, ia gaur rarte.

Gure garaiari eta 21. mendeari begira bagaude, eta hala egotea tokatzen zaio gaur edozein pertsonari bere kulturatik, kulturen elkar harremanetan kulturaren alderdi estatikoak eta dinamikoak bateratzean edo harmonizatzean legoke kultura bakoitzaren eta homo sapiens-aren Kultura eta kulturen iraupen baikorra. Hor dago, beraz, euskal kulturaren etorkizuna ere, eta horri lotuta dihoa egundik etorkizunerantz begira dagoen beraren kide den edonorren nortasunaren garapen baikorra.

## WELTANSCHAUNGPEAN, GAURARTE

Nire iadanik argitaratutako idazlan batetan (APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin, 1987) Telesforo ARANZADI, Joxemiel BARANDIARAN eta Bronislaw MALINOWSKI antropologoek artean, euskaldunek batipat Aranzadiren eraginez, eta poloniarrek alemaniarren eta ingelestarrengandik azken batean jasota, kultura definizio berbera landu zela nioen. Hiru aipatuen esaldi bana hemen hondora laburki aldatuko dut, hiruak nire beste batean bilduta.

«Cada cultura humana da a sus miembros una visión concreta del mundo, un determinado sabor de la vida», dice B. Malinowski. «Consideraba la cultura tradicional vasca como una unidad o conjunto original de diversos elementos, de los que muchos se hallan también en otros pueblos», dice Joxemiel Barandiarán sobre T. Aranzadi, quien en su teoría concretizada principal de antropología física vasca decía, como ya lo señalé arriba, «Así como hay razas que destacan principalmente por caracteres formulados en el índice céfálico, otras principalmente por la estatura, otras por la coloración, otras por la conformación de los ojos, etcétera, distingue el euskaldun principalmente por la forma de la cara y la postura de la cabeza». Existe entre los tres antropólogos una misma línea de pensamiento fundamental que subrayo con énfasis aquí y ahora.

(APALATEGI BEGIRISTAIN Jm 1987:155)

MALINOWSKI kultura bakoitzak dauken «visión concreta del mundo» delakoari *weltanschauung* deitu zion. Mundiukuspegi kontzeptu honek dinamiko ezaugarria ez zuen behar bestetan kontutan hartzen, 19. mende bukaera eta 20.aren hasieran, europear eta amerikar antropologo guztiek kultura definizio hori azken finean hartu zuten.

*Weltanschauung*-ak zioskuna gaur ere pertsonaren eta sozietatearen zientzilariek bete bete onartzen dugu (GIDDENS Anthony / 1989: 29-58). Areago, gu ere, nola praktika egileok hala zientzilariek, bere pean maiz sarritan gaude. Lehen eta orain errua hortxe dago, zeran alegia: baldin kultura batek bera eta beste guztietatik desberdindua izan eta izaten jarraitu nahi badu, kultura horrek betidanik eta betirako *weltanschauung*-a era estatiko huts batean burutu beharra daukelako ustean.

## MUNDUKO ZAZPI HANDIKIEN MUNDUA, GAUR

Gaur ere pertsonaren eta sozietatearen zientzilariek gehienak beren aztergaiaren praktika sozialaren logikaz erabat baliatzen dira. Zientzilaria, ordea, arrazoimen hutsaren logikaz baliatzeak bakarrik sostenga dezake bere estatusan.

Max WEBER-ek etorkizuneko humanitatearentzat arrazoi-menezko jokabidearen handitze izugarrikoa igarri zuen 20. mende hasieran. Mende honen bukaeran gauden zientzilariek independenteak, ordea, guztiz alderantziz gertatu dela pertsona eta sozietate mailetan esan beharrean gaude. Zergatik hori

gertatu da? Bi arrazoi emango dut hemen: bata, zientzilarigo ia dena organikoak bilakatu delako 20. mendeak aurrera egina, hau da, zientzia independentearen pean jokatu ordez politikaren, ekonomiaren eta ospearen administrazioen pean jokatu dute ia zientzilaria den denek. Ondorioz, nagusinetako batzua aipatzekotan besterik ez, nonahi munduan geda bilakatu da hitzarmenen egile eta eusle bakarra, lehen munduak gosez hiltzen dauka hirugarren mundu guztia eta pobreztasuna eta dependentzia beste bietan nagusitu arazi ditu, eta pertsonateariaren itxaropentasuna heriotz zoriraino eramatu du.

Praktika sozialaren arduradun zuzenak, bereziki demokratikoki aukeratuek, zeinak dira politikariak, ekonomigileak eta militarrek, garatu eta eusten dute aipatu 20 mende bukaerako mundua. Beren laguntzaile kualifikatu eta azken benedikatzailatzat, berriz, zientzilaria organikoak hartu dituzte.

Nola aurkitzen dira Kultura eta kulturak 20. mende bukaeran?

### **KULTURAREN ALDERDI BIKOITZA: ESTATIKOA ETA DINAMIKOA**

Haro garaikidearen haseratik, pertsona eta sozietatearen zientzia bakoitzak kontzeptuzko aportapen bereziren bat egin zuen. Esatebatetarako, soziologiak *sozializazioarena*, psikologiak kontzientziarena, antropologiak *kulturarena*.

Haro horren azken aldian, zientzia bakoitzaren aldetik zera ikusten da: zientzia bakoitzaren barnean, lehenik, eta zientzia guztien artean urruna, beste kontzeptu berri bat ere, iadantik ezaguna, zeina *konplexua* da, behar dela ikerlan guztien oinarrian eta hasieran derrigorrez ezarri.

Antropologiari dagokionez, bere kontzeptu nagusiaren kasuan, zeina kultura da, konplexuak erakusten digu kultura bat bere ezaugarri bakoitzeko aldi berean, eta beti, estatikoa eta dinamikoa alderdiek gorpuzten dutela. Izan ere, kultura bakoitzean, denbora joanala, bere baloreak, arauak eta kultura materiala (pertsonak barne) aldatzen dihoaz.

Weltanschauung-ari bere alderdi estatikoaz gainera gaur egun beste alderdi berria, dinamikoa alegia, erantsi beharra daukagu antropologok. Bikotea, gainera, kulturaren edozein ezaugarriaren azterketan aplikagarri izan behar du Gauza herria, baita ere, beste zientzientzat ematen da.

Galdera orokor berri baten aurrean gaude, azken finean, zientzilaria guztiok.

### **20. MENDE BUKAERAKO GALDERA NAGUSIENA**

Horrela, 20. mendearen bukaeran, mundu zabalerako edo horno sapiens-arentzat zientzia guztietatik galdera nagusia bezala hauxe egin genezake: zer da euskalduntasuna? zer ingelestasuna? zer, azken finean, Kultura eta kulturak? Galdera hauen gune berbera denaren erantzunerako zenbait puntu azterketarako proposatu besterik ez dut egingo, orain:

1. Euskaltasunari dagokionez, antropologo berriok ez dugu aportapen berririk egin, oraindik. Soziologoek, aldiz, herrien autodeterminaziorako eskubideaz teorizatzen dute Euskal Herrian.

Administrazio eta alderdi politikoek soziologoaren modura jokatzen dute, nola Atlantikako Kontseilu Orokorrean hala Nafarroa Garaikoaren eta Euskal Autonomia Elkartearen Parla-mentuetan.

Herritarrek zer diote? Mugimendu soziale asko eta garrantzitsuen egile dira, hala nota: ETA eta/ala Ertzaintza, Lei-

tzarango autobidea, independentzia eta/ala Gernikako Estatu-tua. Gaur punta puntan daudenetako batzuk dira hauek.

2. Ingelestanari dagokionez, antropologoak, orohar eta betidanik bezala, ez dira ausartu gai horri buruzbelarritz helteza Soziologoek geroz eta ausartikiago horri heltzen dihoazkio, nahiz Ikerlari hauen lana beste batzuek ezkortzat jo (Edt. COLLS Robert eta DODD Philips /1986 / 1987)

Administrazioak eta politikoek soziologoaren modura jokatzen dute, nola *British Parliament of London-ean* hala *Commonwealth-ean*, EEB-an eta munduko Zazpi Handikien Kluban, esatebaterako.

Herritarrek, beren aldetik, monarkia eta deportea lantzen dituzte beren *Englishness-aren* agergarri nagusienetakotzat (HOBBSAWN Eric eta RANGER Terence), *United Kingdom* ez dela ala badela Europa, esatebaterako.

3. Sobiet Batasun Erresumaren desagitearekin kultura konkretu asko bermoldatzeari hasera eman zaio lurralde izugarri hartan, debeku batzua eta beste agindu batzua erabat gairiditzeari ekinez batera. Europako beste lekutan eta geroz eta gehiago munduko bestatzutan ere gauza bera ikustera gozelako ustea nonahi sendotzen egunetik egunera normahiri dihoakio. Hara zer zioen, esatebaterako, Londonengo *The Times-ek*, bere editorialean, joan abuztuko 29an, Gorbatxeb hiru egunetako bahiketa ondoren Crimeatik Kremlinoko bere lehen-go lehen botere aulkira berrituzuli eta egun gutxitara (beste behin ere kulturen arteko harremanetan gatazka azken erabakitzaille daukagularik, eta oraingo honetan bere goi era nagusienean, hain zuzen gerla eran, zeinari hasera eman zitzaion estatu kolpe bateaz):

Mr. Gorbachev's reputation is now in the balance. If he wishes to recover lost ground and set a noble seal on the events of the past month, he will back his acknowledgement that the Soviet Union cannot continue in its present form with sweeping legal and political proposals. Its dismantling requires political skills of the highest order. He has shown these skills in the past. But if he is unwilling to use them to steer *this vast conglomerate of peoples* onto a new course, he will be swept aside.

(THE TIMES Thursday August 29 1991 )

Adibide modura aipatu hiru puntuen segidan bereziki ondorio bat azpimarkatu nahi dut hemen: Kultura eta kulturak, epe luzeagoan edo epe motzagoan, aldi berean beti estatikoa eta dinamikoa direla, eta ezaugarri bikotea, baita ere beti, historian gatazkaren bidez elkar uztartu dituztela kulturek, gutxienez orainarte humanitatearen berri dakigunaren arabera hori baiets dezakegularik.

Ondorioz, antropologia berrian, zeina pertsona eta sozietatearen zientzia guztiek bat eginda bakarrik osotzen da (Lucy MAIR-en «matriz social» horixe bera da, nire irudiko. /1965 / 1981: 15), galdera nagusienetakotzat ematen duan hau derrigorrez letorkiguke: homo sapiens-aren Kulturak eta kulturek gatazka bidetik joz ez, ezberdinen batasunaren bidetik joz bai-zik, antropologia berriak etorkizunean zer zientziatzko bide proposa lezake?

### **KULTURA BATZAILE-AREN/EN EZAUGARRIETARANTZ: PARADIGMA BERRIA**

Paradigma berria antropologia berriarentzat hiru arlo hauetan eraikiko litzatekeela gaur uste dut:

1. Kosmoaren legeak geroago eta gehiago ezagutu eta zintzo bete. Horretarako, beraren zientziaren egileek askatasun osoz jokatu beharko dute, eta ezaguna eta ezezaguna beti ongi bereiztu eta beste pertsona guztiei erakutsi oso osorik ikertutakoa.

2. Pertsona eta sozietatearen legeak geroago eta gehiago ezagutu eta zintzo bete. Horretarako beraren zientziaren egileek askatasun osoz jokatu beharko dute, eta ezaguna eta ezezaguna beti ongi bereiztu eta beste pertsona guztiei erakutsi oso osorik ikertutakoa.

3. Trastzendentzia legeak geroago eta gehiago ezagutu eta zintzo bete. Horretarako, beraren ordezkariak askatasun osoz jokatu beharko dute, eta ezaguna eta ezezaguna beti ongi bereiztu eta beste pertsona guztiei erakutsi oso osorik ikertutakoa.

## AMAIERA. NIRE TESIA

Eusko Ikaskuntzak antolatutako XI. Kongresuaren *Kultur antolabide berriak: Euskal Herria eta Europa* delakorako egin dudana idatzi honen amaierara iritsi naiz. *Kulturen arteko gatazka. Cultures in conflicts* izenburupean idatzia prestatu dut. Azkenengoz, beraren zehar agertu dudana tesis laburbilduko dut segidan.

Euskal Kultura, bereziki azken ehun urteotan, Europa mendebalari geroz eta lotuagoa bilakatzen joan da. Batipat euskal antropologiatik begiratuta hori azpimarkatu dut honako bere egile nagusietako batzuen bidez: W. WEBSTER, T. ARANZADI, Jm. BARANDIARAN (oraindik bere 101 urtekin bizirik) eta J. CARO BAROJA Euskal Herrian, eta B. MALI-NOWSKI, F. GRAEBNER eta F. BOAS European, Ameriketan eta Ozeanian. Hauek denek munduko kultura konkretu bakoitzak izaten jarraitzeko dauken zientziako arazoia landu zuten, horretarako kulturaren alderdi estatikoan bereziki oinarrituz.

Gaur, ehun urte beranduago, Euskal Kultura eta beste edozein europar kultura konkretorik Europari bakarri lotuz ge-

ro, ez dagoela pertsona eta sozietatearen zientzietan aritzerik sostengatu dut. Izan ere, Munduko Kultura eta kultura guztiek bat egin dute eta oraindik gehiago egitera dihoaz nola egunero elkarren arteko harremanetan hala ingurunearekin, zeinari Kosmoa deitu behar zaio hemendik aurrera. Gainera, Espezie Humanoaren eta Kosmoaren gairik, historiaren denbora osoan gertatu antzera, Trastzendentziarekin aurrez aurre topo egin jarraitzen dugula ere sostengatu dut.

Nik ere, beste gaurko ikerlari batzuek bezala, Edgar MORIN bat esatebaterako, dudarik ez dut egiten zientziasuna paradigma berri batekin aurkitzen dela, bere ezaugarrien taula oraindik nola osatu ez dakigula gabiltzalarik. Horregatik, pertsona eta sozietatearen azkenengo zientzilari ospetsuenetako baten paradigma, beste gehiagoren artean bat besterik ez aipatzearen, gogora ekarriko dut, hura gehiago ez dela gai Munduko Kultura eta kulturen jarraipen baikorra erdiesteko hobetoago adierazteko asmoz. Herbert MARCUSE-k, alegia, 1964an bere *One dimensional man* liburuarekin, urte gutxi barruan bi hemisferioetan zabaldu zena, erakunde «free» eta «democratic liberties» deiturikakoen bidez gaur egungo sozietatean totalitarismo berri bat sortu zela eta horren aurka egiteko behar zen erreboluziozko energiaren kutxa «those who are outside the productive process», hots, berauek minoritateak, langabetuak eta ikasleak bereziki zirelarik, delakoengan gordetzen zela tesitza eman zuen. Hemendik aurrera, ordea, egunetik egunera gehiago, homo sapiens-aren Kulturaren eta kulturen prozesu bakoikorrean MARCUSE-n «those who are outside» direlakoak pertsona eta sozietatea batera oso osorik dira.

Cultures in conflicts, noiz arte? Kulturen artean kultura bakoitzarekiko errespetua gehiago galtzen ez den arte.

## BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin.** 1987 «Estado histórico-actual de la antropología y de la etnografía en euskal Herria. 135-184. *Ohitura* 5. Vitoria-Gasteiz: Seminario alavés de etnografía - Arabako etnografía mintegia.
- COLLS Robert and DODD Phiiip (Edt).** 1987 (1986) *Englishness. Politics and culture 1880-1920*. London: Croom Helm.
- GIDDENS Anthony.** 1991 (1989) Reprinted. *Sociology*. Cambridge: Polity Press.
- HOBBSAWM Eric and RANGER Terence.** *The invention of tradition*.
- MAIR Lucy.** 1965 *An introduction to social anthropology*. Oxford: The Clarendon Press. 1981 (6a. Ed.) *Introducción a la antropología social*. Madrid: Alianza Editorial.
- MARCUSE Herbert.** 1968 (1964) *One dimensional man*. London. Sphere Books Ltd.
- The Times.** Thursday August 29 1991. «Soviet succession». *The Times*, London.